

OROITZAPENENEK DIRAUTE

Anttoni Lopetegi

Gaur ez du libururik ekarri; presaka izango da, edo, ahantzi egingo zitzaien, edo, agian norbaitekin hitzordua du, edo... Dena dela, ia lehenbailehen alde egiten duen. Behingoz, garaiz itxi ahal izango dut.

– Mesedez...!

– Bai...

– Kafesne bat, azukrerik gabe.

– Segituan.

Lehen besterik zen, edo agian ez, baina hainbeste aldatu da dena! Non geratu da Katixa, non bere ilusioak? Urte, egun, une... datorren oro irensten du denborak, eta zenbaitetan, pertsonak ere; dirauten bakar-rak, oroitzapenak. Noiz arte, baina? Beharbada, ilusioak errealtate bihurtu arte.

Argi dago ez duela berehala joateko asmorik. Norbaiten zain egongo da. Jada, hutsik geratu da taberna. Alkandora urdina ageri zaio jertsearen azpitik; gizon askok dituzte gustuko urdin koloreko alkandorak... Zergatik erreparatzen ote diozu gaur hainbeste X jaunari, Katixa? Zer eginik ez-eta! Tarteka bizarrari heltzen dio, betaurrekoen beira lausotuak garbitzeari ekin, eta gure begiradak gurutzatzen dira. Katixa, Katixa!, hobe duzu erratza pasatzen-edo hastea... bestela, bidali nahi duzula pentsatuko du, eta... ez da oker ibiliko...

Lehen besterik zen, edo agian ez, baina ez ninduen orain bezainbeste kezkatzen denboraren iheskortasunak. Urko nirekin zegoen orduan eta, horrek nire lana arintzen ez bazuen ere, bera ondoan izateak indartsu sentiarazten ninduen eta eguneroko zama eramangarriagoa gertatzen zitzaidan.


Egia esateko, gutxitan azaltzen zen tabernara; noizbehinka ustekabeen harrapatzen ninduen eta, goizean, taberna ireki orduko, nire lehen kafea presta niezaion agertzen zen eta barra ondoko aulki luze- ren batean esertzen, eguna ongi hasi nahi zuen aitzakiarekin. Ondoren, etxera igo eta orduak eta orduak ematen zituen sukalde ondoko gela txikian prestatu zuen estudioan.

Arkitektura ikasketak bukatu zituene- tik bi bulegotan aritu zen lanean; orduko helburu bakarra curriculum osatzea zen.

Karrerako nire azken urtean nenbilen elkar ezagutu genuenean. Arte Ederretako ikasleok gertu genituen arkitekto gaiak, eta batzuekiko, izan, bagenuen nolabaiteko miresmena. Urko aspalditik nuen begiko eta, gerora behin aitortu zidanez, baita berak ni ere.

Garai hartan tabernanuen diru-iturri bakarra, baina, hala ere, behin-behineko lana baino ez zen. Ametsek eguneroko errealtate gordina estaltzen zuten eta ilusioen pisuak aurrera egiten laguntzen zigan.

Bosgarren urtea bukatzerako gure harremana sendotuta zegoen eta bizi-proiektu berri bat elkarrekin abian jartzea erabaki genuen. Tabernako nagusiak atikoaren jabe ere baziren, eta alokairu merke baten truke utziko zigutela agindu zidaten, tabernan lan egiten jarraitzeko



baldintzapean. Eskaintza ona zen, baina, ohartzen nintzen nire etorkizuna hasiera-ko ilusioetatik urruntzen ari zela. Lizentziatu berritan zaila zen gustuko arloan zerbait topatzea eta eskuetan nuenari eustea baino ez zitzaidan geratzen. Hasi nintzen bada, goizez tabernako lanetan eta arratsalde etxean, sormenari leku egiteko asmoz, inoiz balizko erakusketa- ren batean lanak aurkeztu ahal izateko itxaropenari eutsi nahian.

Urkok kanpoan ematen zituen eguneko ordu gehienak. Bulegoan lana pilatzen zitzaiela-eta zegozkionak baino ordu gehiago sartzen zituen. Gogorra izan zen lehen urtea. Bigarrenean bere estudioa non eta nola moldatu pentsatzen hasi zen. Hiru hilabeteren ostean bulegoa utzi eta etxean hasi zen lanean, bakarrik.

Arratsalde zoragarriak ziren haiek; hitz gutxi zuzentzen genizkion elkarri, baina bestearen presentzia sumatze hutsa nahikoa zen. Lantzean behin, egongelan agertzen zitzaidan, ni ustekabeen harrapatzeko asmoz, eta bide batez nire lanari buruzko kritika objektiboa egiten saiatzen zen, nire ustez, zorrotzegia. Bestetan, aldiz, lepo-txokora hurbildu eta ulertezina zen edozer xuxurlatzen zidan; arkatza batzuetan, ikatza besteetan, oliotan bustitako pintzela gehienetan, eskue- tatik kendu eta koreografia baten mugimendua bailitzan bere ondoraino gertur- ratzen ninduen pigmentuen usain sarkorrak eta arnas lurrinek bat egin arte. Ilunabarrak gaua harrapatzen zuen, baina, gauak ere, hitzik gabe esan ohi diren hainbat sekretu entzun ondoren, bide egiten zion egusentiarri.

Eta film erromantikoetan legez, ustez behin-betikoa izango zen egoera zorion- tsu hura ere irentsi zuen denborak.

Telefono dei bat, atzerrian merkatari- tza-gune izugarri bat diseinatze- ko proiektua... Urkoren lanak uzta oparoa zekarrela zirudien, baina baita zenbait al- daketa ere gure bizitzan.

Mexikora bidaiatzen zuen lehen aldia zen. Gogoan dut aireportuko atletik irtete- rakoan eskaini zidan begirada: urdin ko- loreko alkandorak are distiratsua goak egiten zituen bere begiak.

Hasieran maiz hitz egiten genuen, ia egunero, baina, pixkanaka, murrizten jo- an ziren deiak, desagertzeraino. Zerga- tik?, zer gertatu zen?, ba al dago horrela desagertzerik?

Lehen besterik zen, edo agian ez, bai- na... bost urte pasa dira, eta ez dut uste ta- bernako neska margolariak gogoratuko denik.

– Hemen azukrerik gabeko kafesnea. Zerbait gehiago...?

X jaunak, poliki, betaurrekoak mahai gainean utzi eta niregana biratu du burua;

– Bai...zure barkamena, Katixa, eta azalpen bat emateko aukera.

– Urko...!

Anttoni Lopetegi Senperena. Lezon 1967an jaioa. EHU Filologia Klasikoan li- zentziaduna da. Egund, Eibarko UNIn dabil irakasle lanetan.